BESTELAKO XEDAPENAK

ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

4246

EBAZPENA, 2014ko irailaren 17koa, Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko zuzendari nagusiarena, 2014 ekitaldirako prebentzioko ordezkarien oinarrizko prestakuntza emateko baimenari buruzko ebazpenak argitara emateko dena.

GERTAKARIAK

1.– 2014ko ekainaren 30ean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian honako ebazpen hau eman zen argitara: Ebazpena, 2014ko ekainaren 18koa, Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko zuzendari nagusiarena, 2014 ekitaldiari dagokionez prebentzioko ordezkarien oinarrizko prestakuntza emateko baimenaren eta diru-laguntzaren deialdia egiten duena.

2.– 2014ko uztailaren 18an amaitu zen eskabideak aurkezteko epea; eta Araban 14 eskabide aurkeztu ziren, Bizkaian 25, eta Gipuzkoan 19; hortaz, 58 eskabide, zehazki, enpresekin zerbitzuak itundurik izanik, haien prebentzioko ordezkariei dagokienez akreditatutako prebentzio-zerbitzuek eta prestakuntza-zentroek (publikoek zein pribatuek) egindako eskabideak, betiere egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan dutelarik.

3.– 2014ko irailaren 11n eta 17an eta abuztuaren 12an egindako batzarretan, Ebaluazio Batzordeak ebaluatu zituen eskabideak, betiere deialdiko oinarrietan ezarritako betekizunekin bat etorriaz. Proposamena, Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko zuzendari nagusiari helarazi zitzaion, hark ebazpena eman dezan.

4.– 2014ko abuztuaren 26an eta irailaren 17an, Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko zuzendari nagusiak honako ebazpen hauek eman zituen: 2014ko ekitaldiari dagokionez prebentzioko ordezkarien oinarrizko prestakuntza emateko baimenarenari buruzkoak.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.– 2014ko ekainaren 18an, Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko zuzendari nagusiak emandako Ebazpenaren bidez, 2014 ekitaldiari dagokionez prebentzioko ordezkarien oinarrizko prestakuntza emateko baimenaren eta diru-laguntzaren deialdia egiten da. Bada, ebazpen horren 2. artikuluan xedatzen denez, «2014ko ekitaldiari dagokionez prebentzioko ordezkarien oinarrizko prestakuntza emateko baimena lortu ostean, diru-laguntza eskatu ahal izango dute honako hauek: prestakuntza-zentroek (publikoek zein pribatuek), sindikatuek, Gizarte Segurantzako lan-istripu eta lanbide-gaixotasunen mutualitateek, eta, orobat, enpresekin zerbitzuak itundurik izanik, haien prebentzioko ordezkariei dagokienez akreditatutako prebentzio-zerbitzuek, betiere egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan badute»

2.– Aipatu ebazpenaren 9.4 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriaz, «eskabideak aurkezteko epea 15 egunekoa izango da, EHAAn deialdia argitaratu eta hurrengo egunetik hara».

3.– Aipatu ebazpenaren 10. artikuluak honako hau xedatzen du: Ebaluazio Batzordeak proposatuta, Osalaneko zuzendari nagusiari dagokio, ebazpen bidez, baiezkoa edo ezekoa

ematea –2014 ekitaldiari dagokionez– prebentzioko ordezkarien oinarrizko prestakuntza emateko baimen-eskabideei.

4.– Aipatu ebazpenaren 5.6 artikuluak honako hau ezartzen du: «publizitatearen ondorioetarako, ebazpen egokiak argitaratu beharko dira EHAAn, prestakuntza emateko baimenari zein diru-laguntzari dagokionez».

Horregatik, honakoa

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– 2014 ekitaldirako prebentzioko ordezkarien oinarrizko prestakuntza emateko baimenari buruzko ebazpenak argitara ematea, ebazpen honetako I. eta II. eranskinetan jasotako erakundeei dagokienez.

Bigarrena.– Ebazpenak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Hirugarrena.– Ebazpen honek administrazio-bidea amaitzen du, eta beraren aurka aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke Osalaneko zuzendari nagusiari hilabeteko epean, edo bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa txandaz dagokion Bilboko Administrazioarekiko Auzietako Epaitegiaren aurrean, bi hilabeteko epean; bi kasuetan, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasita, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8.3. eta 46.1 artikuluetan ezarritakoaren arabera.

Barakaldo, 2014ko irailaren 17a.

OSALANeko zuzendari nagusia,
IZASKUN URIEN AZPITARTE.

I. ERANSKINA

2014 EKITALDIRAKO PREBENTZIOKO ORDEZKARIEN OINARRIZKO PRESTAKUNTZA EMATEKO BAIMENAK ONARTZEN DITUZTEN EBAZPENAK

BIZKAIA

Entitatea	Eremua	Prestatu beharreko prebentzioko ordezkariak (POak)
IFPS Repélega GLHBI	– Araudia (Afiliaziorik gabeko POak) – Teknikoa	Denak
Juritecnia, S.L.	– Araudia (Afiliaziorik gabeko POak) – Teknikoa	Denak
IES Bidebieta BHI	– Araudia (Afiliaziorik gabeko POak) – Teknikoa	Denak
Instituto de Formación Práctica de Riesgos Laborales, S.L.	– Araudia (Afiliaziorik gabeko POak) – Teknikoa	Denak
Nuevas Promociones– Gorapen Berriak, S.L. (UP Formación)	– Araudia (Afiliaziorik gabeko POak) – Teknikoa	Denak
Lea Artibai S. Kooperatiba	– Araudia (Afiliaziorik gabeko POak) – Teknikoa	Denak
Sociedad de Prevención Mutualia	– Araudia (Afiliaziorik gabeko POak) – Teknikoa	Itundutako bere enpresetako POak
Servicio de Prevención Segurtek, S.L.	– Araudia (Afiliaziorik gabeko POak) – Teknikoa	Itundutako bere enpresetako POak
Fondo Formación Euskadi, S.L.	– Araudia (Afiliaziorik gabeko POak) – Teknikoa	Denak
Oblomov S.L. (C2B)	– Araudia (Afiliaziorik gabeko POak) – Teknikoa	Denak
Sdad. Coop. de Enseñanza Zabalburu	– Araudia (Afiliaziorik gabeko POak) – Teknikoa	Denak
Konectia Servicios Integrales, S.L.	– Araudia (Afiliaziorik gabeko POak) – Teknikoa	Denak
Centro de Estudios FP Academia Ibaiondo, S.L.	– Araudia (Afiliaziorik gabeko POak) – Teknikoa	Denak
Centros para la Formación y Prevención Laboral, S.L. (CFP)	– Araudia (Afiliaziorik gabeko POak) – Teknikoa	Itundutako bere enpresetako POak
Iurreta GLHBI	– Araudia (Afiliaziorik gabeko POak) – Teknikoa	Denak
IES Construcción Bizkaia BMI	– Araudia (Afiliaziorik gabeko POak) – Teknikoa	Denak
Integra Soluciones Empresariales, S.L.	– Araudia (Afiliaziorik gabeko POak) – Teknikoa	Denak
Instituto de Formación y Estudios Sociales – IFES	– Araudia (Afiliaziorik gabeko POak) – Teknikoa	Denak
Langile Abertzaleen Batzordeak – LAB	– Araudia	Denak
SPRILNORTE S.L.	– Araudia (Afiliaziorik gabeko POak) – Teknikoa	Itundutako bere enpresetako POak
CCOO	– Araudia	Denak
ELA/STV	– Araudia	Denak
ESK	– Araudia	Denak
LSB-USO	– Araudia	Denak
UGT Euskadi	– Araudia	Denak

ARABA

Entitatea	Eremua	Prestatu beharreko prebentzioko ordezkariak
Fundación Diocesanas– Jesús Obrero (EGIBIDE)	– Araudia (Afiliaziorik gabeko POak) – Teknikoa	Denak
Centros para la Formación y Prevención Laboral, S.L. (CFP)	– Araudia (Afiliaziorik gabeko POak) – Teknikoa	Itundutako bere enpresetako POak
Fondo Formación Euskadi, S.L.	– Araudia (Afiliaziorik gabeko POak) – Teknikoa	Denak
IES Construcción BHI– Gasteiz	– Araudia (Afiliaziorik gabeko POak) – Teknikoa	Denak
Mutualiaren Prebentzio Sozietatea, S.L.U.	– Araudia (Afiliaziorik gabeko POak) – Teknikoa	Itundutako bere enpresetako POak
Instituto Europa S.L.	– Araudia (Afiliaziorik gabeko POak) – Teknikoa	Denak
Instituto de Formación y Estudios Sociales– IFES	– Araudia (Afiliaziorik gabeko POak) – Teknikoa	Denak
URKO – Servicios de Prevención S. Coop.	– Araudia (Afiliaziorik gabeko POak) – Teknikoa	Denak
Langile Abertzaleen Batzordeak – LAB	– Araudia	Denak
ELK/CCOO	– Araudia	Denak
LSB-USO	– Araudia	Denak
UGT Euskadi	– Araudia	Denak
ELA/STV	– Araudia	Denak

GIPUZKOA

Entitatea	Eremua	Prestatu beharreko prebentzioko ordezkariak
Prevencilan, S.L.	– Araudia (Afiliaziorik gabeko POak) – Teknikoa	Itundutako bere enpresetako POak
URKO – Servicios de Prevención S. Coop.	– Araudia (Afiliaziorik gabeko POak) – Teknikoa	Denak
Asociación Pedagógica Mendibil	– Araudia (Afiliaziorik gabeko POak) – Teknikoa	Denak
CEI – Servicio de Prevención S.L.U.	– Araudia (Afiliaziorik gabeko POak) – Teknikoa	Itundutako bere enpresetako POak
CEI – Formación y Asesoramiento Empresarial, S.L.U.	– Araudia (Afiliaziorik gabeko POak) – Teknikoa	Denak
UGT Euskadi	– Araudia	Denak
Siprex Prevención, S. L.	– Araudia (Afiliaziorik gabeko POak) – Teknikoa	Itundutako bere enpresetako POak
Centro Cultural Nazaret	– Araudia (Afiliaziorik gabeko POak) – Teknikoa	Denak
CENFORPRE – Servicio de Prevención	– Araudia (Afiliaziorik gabeko POak) – Teknikoa	Itundutako bere enpresetako POak
PREMANK – Servicio de Prevención Ajeno S.L.	– Araudia (Afiliaziorik gabeko POak) – Teknikoa	Itundutako bere enpresetako POak
Fondo Formación Euskadi, S.L.L.	– Araudia (Afiliaziorik gabeko POak) – Teknikoa	Denak
Instituto de Formación y Estudios Sociales– IFES	– Araudia (Afiliaziorik gabeko POak) – Teknikoa	Denak
Sociedad de Prevención de Mutualia S.L.U.	– Araudia (Afiliaziorik gabeko POak) – Teknikoa	Itundutako bere enpresetako POak
IEFPS Meka Lanbide Eskola GLHBI	– Araudia (Afiliaziorik gabeko POak) – Teknikoa	Denak
ZITAP S.L.	– Araudia (Afiliaziorik gabeko POak) – Teknikoa	Denak
Langile Abertzaleen Batzordeak – LAB	– Araudia	Denak
Euskadiko ELK/CCOO	– Araudia	Denak
ELA/STV	– Araudia	Denak

II. ERANSKINA

2014 EKITALDIRAKO PREBENTZIOKO ORDEZKARIEN OINARRIZKO PRESTAKUNTZA EMATEKO BAIMENAK EZESTEN DITUZTEN EBAZPENAK

ARABA

Entitatea	Eremua	Prestatu beharreko prebentzioko ordezkariak
Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta haren erakunde autonomoen Prebentzio Zerbitzu propioa		

GIPUZKOA

Entitatea	Eremua	Prestatu beharreko prebentzioko ordezkariak
Osarten koop. Elkartea		